

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak dira enpresa batek egin behar duen gauzarik garrantzitsuenak, denak ondo funtziona dezan. Gure kasuan, ekoiztea da garrantzitsuenak: kasko adimendunen kalitatea diseinatu, muntatu eta kontrolatzea. Beste enpresa batzuei laguntza eska diezaikegu zeregin horietako batzuetarako, baina ezin diegu eskatu produktua diseinatzeko, horrek zerikusia baitu gure enpresak inork baino hobeto egiten dakienarekin.

Bestalde, problemak ebaztea ere funtsezkoa da, hau da, softwarearen akatsak zuzentzea, itzulpenaren zehaztasuna hobetzea eta bezeroen arazo teknikoak konpontzea. Jarduera horiek barnean egin behar dira, enpresaren ezagutza teknikoaren parte direlako.

Azkenik, plataforma edo sareko jarduerak daude, hala nola aplikazio mugikorra mantentzea, eguneraketak egitea eta erabiltzaileen arteko konektibitatea bermatzea. Zerbitzariak edo azpiegitura teknikoa kanpoko enpresei laga dakizkieke, baina softwarearen funtzionamendu nagusia eta datuen kudeaketa ezin dira kanpoko eskuordetu.